
2. HARRIA



GATAZKAK

BORROKA MOLDEAK ETA KULTURA POLITIKOA HERRI MUGIMENDUETAN



>>aurkibidea

4--------Sarrera

6--------Helburuak

8--------Saio itxiak

9--------Beste mugimenduetako kideekin egindako saioak eta saio publikoak

12-------Gatazka(k): gaiaren aurkezpena

14-------Testuingurua

16-------Gatazka(k), konfrontazioa eta protesta
Konfrontazioaren definizioa
Protestaren definizioa

20-------Gogoetarako proposamena

22----------Gatazkaren abiapuntua

25----------Prozesua

27----------Gatazkaren eskalatzea

29----------Ondorioak

31-------Eta hemendik aurrera zer?



Joxemi Zumalabe Fundazioa

creative commons

2019ko ekaina

"2. Harria. GATAZKAK: Borroka moldeak eta kultura politikoa herri mugimenduetan".

Disenu eta maketazioa: BARRAKA editions.

sarrera

Joxemi Zumalabe Fundazioaren hezurmuina dira formazioa, dinamizazioa eta gogoeta; azken horren bueltan kokatzen da gure proiektu-taldea. Hausnarrean eta solasean aritzeko espazioak ahalbidetzen ditugu eta herri mugimenduentzat erabilgarriak izan daitezkeen gogoeta kolektibo eta kokatuak plazaratzea dugu xede.

Esku artean duzun kaiera hau, Joxemi Zumalabeko Borroka moldeak eta kultura politikoa herri mugimenduetan proiktuaren bitartez egindako prozesuaren emaitzetako bat da. Fundazioaren lan-ildotik abiatuta, 2012an jarri genuen martxan Aktibismo edo militantzia politikoa eta kolektiboen barne horizontaltasunari buruzko gogoeta. 2014an «Dabilen Harriari Goroldiorik ez» liburuxka eta DVD-a argitaratu ostean, hainbat aurkezpen eta eztabaida egin genituen. Hiru urte geroago, 2017an, liburuxka gaztelaniara itzuli eta kaleratu egin genuen.

Prozesu horrek hainbat kezka azaleratu zituen eta gogoeta fase berri bati ekin genion. Hala, barrura eta kanpora begirakoaren arteko oreka bilatu nahi izan genuen; herri mugimenduen barnera begiratzearen garrantziaz ahaztu gabe (hori izan zen militantzia ereduen inguruko hausnarketaren xede nagusia), borroka molde eta kultura politikoei erreparatu nahi genien. Iruditu zitzaigun pendulu efektua izan zezakeela; hau da, hausnarketa kolektiboen zein taldeen barne-bizitzara bideratuz gero, koletiboen jardunean eragiten duten kanpo-elementuei arreta gutxiago jartzeko arriskua egon zitekeela. Garai hartan esaten bagenuen ezin zela kanpora begiratu barrukoari erreparatu gabe, oraingoan argi dugu kontrakoa ere ez dela egokia.


2015-2016 ikasturtean hartu genuen Borroka moldeeen inguruan gogoetatzeko erabakia. Hori horrela, gure lehen kezkak bildu eta horietatik abiatu ginen: borroka moldeen inguruan hitz egiteko ditugun zailtasunak eta aukerak, iraganeko ikaspenak eta egungo testuinguruaren ertzak. Prozesu horren emaitzaren zatietako bat da esku artean duzuna.

Edukiei dagokionez, eztabaida luze baten ostean lau gai nagusi identifikatu genituen: aliantzak, desobedientziak, gatazkak eta biolentziak. Aukeraketa gure interesekin bat dator, baina horrek ez du esan nahi, inondik inora, kultura politikoaren azterketa horietan agortzen denik.

Bestalde, militantzia-ereduetan pentsatzen jardun ginenean aipatu genuen interesgarria iruditzen zitzaigula hiru eremutan arreta jartzea: kidea, taldea eta proiektua, hain zuzen ere. Hiru elementu horien artean oreka topatzea komeni da. Egun laugarren batek ere hartu du garrantzia: testuinguruak; ezinezkoa baita borroka moldeen inguruko gogoeta egitea bizi dugun testuinguruari erreparatu gabe. Bestalde, gainontzeko hiru elementuei ere eragiten die.

Herri mugimenduen zenbait espaziotan antzeman ditugun eztabaidak jasotzeko, aztertzeko eta laguntzeko asmoarekin abiatu dugu ibilbide berri hau. Hurrengo orrietan aurkituko dituzue bidean bildu ditugun galdera eta tresna praktikoak. Gogoetarako, bide berriak irekitzeko eta erabakiak hartzeko lagungarriak izango direlakoan,


on egin!



●●● helburuak



Esan dugun moduan, gogoeta dugu fundazioaren ardatzetako bat. Gure asmoa da herri mugimenduentzat eta herri mugimenduekin batera interes kolektiboa izan dezaketen gaien inguruko ikerketa aktibista eta hausnarketak sustatzea. Jendarte eraldaketara bidean, egungo errealitateari buruzko begiradak elkartzeko ahalegina egiten dugu. Laburki, hauek dira egitasmo horren helburu zehatzak:



Kolektiboen barrura begirakoaren lanketatik abiatuta kanpora begirako lanketa bultzatzea.



Borroka moldeak/kultura politikaren aterkiaren azpian gogoetarako espazioak irekitzea.



Aliantzen, desobedientzien, gatazken eta biolentziaren inguruko gogoeta-tresnak sortzea.

Oraingoan ere, garrantzitsua da zenbait alderdi azpimarratzea eta kontuan hartzea:

- Gure asmoa ez da inoren posizioa epaitzea.
- Gure begiraden aniztasuna islatzeaz gain, hainbat kezka komunei heltzen saiatu gara. Eztabaida blokeatu dezaketen ikuspegi dikotomikoak saihestu ditugu, ahal izan dugun neurrian.
- Gai baten inguruan iritziak eta ikuspegiak azaleratzeaz haraindi, gure beldurrak ere atera nahi izan ditugu. Gai batzuen inguruan hitz egiteko dugun zailtasun edo ezintasuna ere azaldu da gure eztabaidan.

Prozesuaren nondik norakoak

Gai bakoitzaren inguruan formatu ezberdinetako hainbat saio burutu ditugu. Formatu txikiari heldu diogu; hala, gai bakoitzak eskatzen duen autonomia lantzearekin bat, gaiak elkarren artean harremanetan jartzeko ahalegina egin dugu. Borroka moldeen gaia lantzeko gure asmoa argi izan dugun arren, ez da erraza izan helburuak zehaztea, ezta gaiak ixtea ere. Era berean, lan egiteko hainbat modu tartekatzeak lagundu digu eztabaidarako espazio seguru eta irekiak sortzen. Bi eratako saioak egin ditugu:

Saio itxiak

Fundazioko kideen arteko eztabaida eta gogoeta sustatu ditugu. Gaia ireki ondoren, bildutakoa borobildu dugu. Publikoki zabaldu edo beste kolektibo batzuekin landu baino lehenago, gure artean gaiak aztertzeari garrantzia eman diogu, ideiak trukatu eta partekatze aldera. Horretarako, herrigintzatik eta akademiatik sortutako irakurgaiak ere bidelagun izan ditugu. Saio horietan agerian gelditu dira planteamenduen arteko ezberdintasunak, eta ohartu gara askotan ez dugula tarterik hartu berauek sakon plazaratzeko.



Irudia: 'Herri mugimenduetako kultura politikoak aztergai' saio publikoa.



Beste mugimenduetako kideekin egindako saioak eta saio publikoak

Barne-mintegietan identifikatutakoaren haritik, beste saio batzuetan[1] solasean aritu gara herri mugimenduetako kide eta gai bakoitzarengandik hurbil dauden gonbidatuekin. Gogoetarako saioak ez dira publikoak izan, Bergaran, Laudion eta Zubietan egin ziren hiru saio izan ezik.

2016. urteko ekainean, Bergaran "Herri mugimenduetako kultura politikoak aztergai" mahai-ingurua antolatu genuen, "Atxiki dezagun oraina" fundazioaren ospakizun egunaren baitan. Aliantzak, desobedientziak, gatazkak eta biolentziak izan genituen ardatz. Gai horien ertzak mahaigaineratzen aritu ziren Zigor Olabarria aktibista, Itziar Gandarias ikertzaile eta aktibista feminista, Mauge Cañada Arterra Bizimodu proiektuko kidea eta Julen Zabalo aktibista eta EHUko irakaslea. Guztira 40 lagun inguruk parte hartu genuen gogoetan, eta talde handi zein txikian iritziak partekatzen aritu ginen.

Irudia : Aliantzien inguruko saion egindako mural bat.

1 Biolentziak: 2016ko ekaina; aliantzak: 2016ko ekaina; gatazkak: 2017ko maiatza.



Laudion, aldiz, «Gazteen borroka moldeak: norantz eta nola?» tailerra egin genuen 2016ko "Gazte Danbada" topaketaren baitan. Elkar ezagutzeko jolasa egin ondoren, talde txikietan batu eta moldeak eta tresnak identifikatzen ahalegindu ginen. Jarraian, aurrez aipatutako lau ardatzak[1] azaldu eta borroka moldeen inguruko gogoeta abiatu genuen. Bukatzeko, talde txikietan ardatz horien inguruan hausnartu genuen.

2018. urteko irailean, <<Herri mugimenduen borroka moldeak aztergai: gatazkak, biolentziak eta aliantzak>> tailerra egin genuen Iraultza Txikien Akanpada egitasmoaren baitan. Bakoitzak bere esperientziatik tiraka (borroka antiespezistan, feministan, ekologistan, presoen aldeko mugimenduan…) kezkak partekatu genituen. Eta batez ere, gatazka sozialen inguruko irakaspenetan sakondu genuen: konfrontazio egoeretatik ateratakoak, gatazka sozialak nola bizitu ditugun, gatazkak ulertzeko modu ezberdinak, gatazkak kudeatzeko moduak, gatazkak aztertzeko klabeak… .



1 Gatazkak, biolentzia, aliantzak eta desobedientzia

Gatazka(k) Gaiaren aurkezpena

Proiektu honen baitan hizpide izan dira gizarte eraldaketarako bidean herri mugimenduetan piztu diren eta bizi ditugun gatazkak. Azken 30 urteotan hauteman ditugun estrategia aldaketetan, korapiloetan, blokeoetan eta konfrontazioetan jarri dugu arreta; horiek aztertzeko zein etorkizunera begirako erronkei heltzeko tresnen gogoeta egin dugu. Horretarako, saioetan partekatutako esperientziez gain, oso baliagarriak izan zaizkigu hainbat irakurgai.
Saioetan zenbait herri mugimenduetako kidek parte hartu zuten: unibersitateko gune transfeminista, euskalgintza, hezkuntza plataforma, Gipuzkoa Zutik, Lurralde Askea, Zero Zabor...
Tokian tokiko gatazken esperientziak biltzearekin bat, ikuspegi makroago batera salto egin dugu, horiek aztertzeko tresna eta bide-orri bat lortu ahal izateko. Izan ere, gatazkak ezin dira desagerrarazi; ezkutuan edo agerian, beti aurkituko ditugu bidean.

"Berea ez duena, kontrakoa dena inkluso, onartzeko eta baloratzeko adina jakinduriarik ez duen edozein botere modu motza da eta gizarte motz bat elikatzen ari da. Alde edo kontra jartzeko labela nork jarriko dion zain dagoena berdintsu. Botere eta boteretxoengandik norbere irizpideak ere behar du autonomoa eta autogestionatua."

Maialen Lujanbio (2015)
[Euskadi Irratian egindako elkarrizketatik hartua]

"El sistema intenta que todo cambio social se produzca dentro de sí mismo, ensaya para que el conflicto se regule dentro de sus tripas, pretende que todo se resuelva con sus paradigmas. ¿Qué herramientas de lucha precisamos para que la gravedad del campo de batalla se incline hacia nosotras?".

Mikelon (2018)
[Movimiento social: desafíos y oportunidades' hitzalditik berreskuratua.]

Testuingurua

"Los conflictos existen siempre; no tratéis de evitarlos sino de entenderlos"
Lin Yutang

Borroka moldeen gaineko gogoeta burutzerako orduan, ezinbestean kokatu behar dira horiek testuinguru baten baitan. Testuinguru politiko eta sozialek markatzen dute, hein handi batean, garai bakoitzeko ekintza kolektiboa. Une bakoitzean bizi dugun errealitateak baldintzatu egiten ditu herri mugimenduetan antolatzeko moduak, eta eragina dauka eraldatzeko gaitasunean, desioetan zein moduetan. Hortaz, beharrezkotzat jotzen dugu, labur-labur bada ere, egungo egoerari erreparatzea hurrengo paragrafoetan zehar.

Gaur egungo testuinguru politikoaren elementu garrantzitsua da azken hamarkadetan bizi izan dugun borroka armatuaren amaiera. Hala ere, ez litzateke egokia izango gure herrian dauden eztabaida guztien erdigunean jartzea Euskal Herrian gatazka nazionalak izan duen eraldaketa, nazionalak ez diren bestelako zapalkuntzak ikusezin bihurtu eta haien ekarpenak desagertarazi ditzakeelako. Borrokak hierarkizatzeko asmorik gabe, aitortu behar dugu gatazka nazionalak eta bere bilakaerak gatazka definitzeko eta hori bizitzeko moduetan izan duen eragina eta garrantzia. Era berean, nazioartean zein estatuan bizi izan ditugun beste hainbat gertakarik gaitasuna izan dute gure testuingurua erabat eraldatzeko.

Dirudienez, Euskal Herrian gatazkek behera egin dute, tentsio politiko- soziala jaitsi egin da eta gizarte borrokaren intentsitateak leuntze prozesu bat bizi du. Lehengo borroka moldeek eta boterearen erreakzioek berehalako eragina (errepresioa, heriotzak, erbesteratzeak eta abar) zuten eta epe luzerako joerak sortu zituzten. Joera horiek kultura- politikoak eratu eta finkatu zituzten: nahitaezko lerratzeak, polarizazioa, gatazkaren inguruko kontzeptzioak). Horiek ez ziren borroka armatuaren bukaerarekin desagertu. Estatatuaren jokabideak ere eragina izan du gauzak bere horretan mantentzean.

Antza denez, borroka armatuak utzitako ajeak ireki egin ditu gogoetarako espazioak eta berkokatzeak, bai kolektiboki, baita bakarka ere. Dena dela, ez da egun batetik bestera gauzatu daitekeen prozesua; hori horrela, zailtasunak eta blokeo egoerak ez dira gutxi izan, besteak beste, iraganak duen pisuaren edota gatibutasun-sentsazioaren ondorioz. Oraindik ere, borroka armatuaren garaiko logikak eragin handia du herri mugimenduko sektore askoren diskurtso eta jardun politikoan. Hona hemen adibide batzuk: alde edo kontra zaude; nik eta nire ingurukoek badakigu zein den konponbidea, besteek, berriz, ez; gatazka baten aurrean kokatzeko dugun moduak lagunak eta etsaiak sortzen ditu; posizio argia ez duten horiek gurera ekarri behar ditugu. Horrek ez du esan nahi gatazka ekidin behar denik, baina norekin gaude gatazkan? Zeintzuk dira agenteak[1]?

Finean, gatazka aztertzerako orduan, hainbat alderdiri erreperatu behar diogu. Alde batetik, gatazka demokratizaziorako aukera moduan uler daiteke. Horren arabera, eragile guztien ahotsak entzuteko parada eskaintzen dute gatazkek, interes edo iritzi pluralen agertokiak lirateke, eraldaketarako testuinguru sozio-politikoa suposatuko lukete[2]... Aktore guztien parte-hartzerako abagune izan daitezke, posizio anitzen existentzia eta horren onarpena eta kogestiorako markoa sor dezakete. Aldi berean, gatazkek ondorio mingarriak ere badituzte eta, herri mugimenduen ikuspegitik, egoera batzuetan erabiltzen diren konfrotaziorako tresnek ondorio horien larritasuna areagotu dezakete.

Bestetik, gatazka ekidin behar dela azpimarratzen duen ikuspegia dago. Ordena soziala eta egonkortasuna mantentzea du helburu; zentzu horretan, arrisku egoera gisa ulertzen du gatazka. Ordenaren mantenua ez da botere posizoetan daudenek soilik defendatzen duten jarrera; ezegonkortasunak ere izugarri beldurtzen du.

Une honetan badirudi herri mugimenduen baitan gatazka soziala ulertzeko moduak ez direla uztargarriak. Eszena denok eraldatu nahi badugu ere, desberdin begiratzen diogu eta bestelako estrategiak eraikitzen ditugu. Ondorioz, askotariko begirada horiek elkarren artean osagarri izan baino, elkar oztopatzen ari direlakoan gaude.



1 Adibide legez "zurrumurruen aurkako agentea" sortzeko estrategia aipa dezakegu. Norbaitek esaten badigu "inmigranteek diru-laguntza denak eramaten dituzte haientzat" gure erantzun posible bat da: "arrazista hutsa zara" (kasu honetan zu eta gu dinamika argia, zu arrazista zara eta ni ez). Modu honetan haria hausten da eta diskurtsoak "armatu" egiten dira, bere diskurtsoa berrindartzen du parekoak (eta guk). Proposatzen dena esperientzia propiotik abiatzea da eta ezberdin jokatzea: "nik ere hori nuen buruan, zalantza handiak nituen, baina nire bizilagunarekin hitz egin nuen gizarte-langilea dena, eta esan zidan ez zela horrela", "ulertzen dut zure kezka, baina ikusi zenituen beste egunean egunkarietan atera ziren datuak? Oso portzentaia txikia da laguntzak jasotzen dituzten kanpotarrena", edo "nire bizilaguna kanpotik etorri zen eta laguntza jasotzeak asko lagundu zion egonkortzen eta gerora beste alternatiba batzuk bilatzen" eta abar. Aukera asko daude baina azpimarratu behar dena parekoarekin haria ez hausteko beharra da, komunikazio kanala irekia mantentzeko saiakera. Adibide hau gai ezberdin askotara eraman dezakegu.

2 Jone Martinez-Palaciosek hainbat lan argitaratu ditu gatazka sozio-anbietal eta parte-hartzearen inguruan. Gehiago sakondu nahi izanez gero hemen irakurgai: https://recyt.fecyt.es/index.php/recp/article/view/37538/21056

Gatazka(k), konfrontazioa eta protesta

Atal honetan bildu ditugu gatazk(ar)en, konfrontazioaren eta protesten definizioak bildu ditugu; izan ere, hiru ideia horiek behin baino gehiagotan azaleratu dira gogoeta prozesuan. Espero dugu jarraian aipatzen diren kontzeptuen xehetasunak hausnarketarako lagungarriak izatea.

Aurrez aipatu bezala, gatazkak ikuspegi eta era oso ezberdinetatik definitu, ulertu eta aztertu daitezke. Hori dela eta, beharrezkoa ikusi dugu, ezer baino lehen, gatazkez ari garenean zertaz ari garen azaltzea.

Esanahi etimologikotik abiatzen bagara, gatazkak talka esan nahi du[1], bi alderen edo gehiagoren artean gorpuzten den ikuspegi, jarrera edota posizioen arteko talka, hain zuzen ere. Guk egin dugun gogoetaren baitan, aldiz, gatazkaren izaera soziala nabarmendu izan nahi dugu. Eta azpimarra berezia egin nahi izan diogu **gatazkek aldaketa soziala** sustatzeko duten gaitasunari[2]:

- Gizarte desorekak eragiten dituzten **ezberdintasun sozialetan** dago gatazken jatorria. Hainbat gizarte sektoreren arteko botere asimetriak azalarazten dira gatazketan; hau da, agerian uzten dira generoaren, sexuaren, hizkuntzaren, adinaren, jatorriaren, klasearen edota bestelako faktore sozialen eraginez sortzen diren zapalkuntzak. Botere asimetriez ari garenean era guztietako baliabidei egiten diegu erreferentzia: ekonomikoak, denbora, formazioa, botere politikoa, errepresentazioa, informazioa.... Baita ardura edo zereginen banaketei ere.
- **Gatazka eraikitzailea** dela esan dezakegu, posizio indibidual zein kolektiboak mugiarazten ditu-eta. Eraldaketa sozialen prozesuaren parte dira gatazkak[3].

Bestalde, gizarteko hainbat sektore edo kolektiboren beharrak ezagutzeko eta egoerak aldatzeko aukera eskaintzen dute. Aurkakotasunak gorpuzten direnean ahalbidetu daiteke eraldaketa soziala, une horretan gelditzen baitira agerian posizioen arteko ezberdintasunak.

> Gatazken izaera dinamikoa eta erlazionala nabarmendu nahi dugu. Gatazkak dinamikoak dira talkak askotariko formak eta faseak dituelako; eta erlazionalak dira eragileen hartu-emanek –ekintzen kostua, sostengua, konpromisoak eta abar- forma emango diotelako konfrontazioari edo protestari.

Asko sinplifikatuta, herri mugimenduetan gatazkez ari garenean bi arlo nagusi bereizten ditugu:

- **Barne mailakoak.** Hau da, herri mugimenduetako pertsonen edo taldeen artean gauzatu ohi direnak. Horren inguruan beste gogoeta prozesu batzuetan sakondu dugu[4].
- **Gatazka sozialak edo kolektiboak.** Gogoeta prozesu honetan batik bat gizataldeen arteko eremuari egin diogu erreferentzia, gatazkak borroka moldeen eremuan kokatu baititugu. Izan ere, tokian tokiko aldaketak sustatuta edo aldaketei aurre eginda garatu izan da herri mugimenduen lan-jarduna, eta hala izaten jarraitzen du.

Konfrontazioa aipatzen dugunean herri mugimenduek euren helburuak lortzeko moduaz ari gara; alegia, egoera bat eraldatzeko eraikitzen den harreman sozialaz. Beraz, mugimenduen edo taldeen ekintza edo jardun politikoek ordena material eta sinbolikoa apurtzen dutenean egongo ginateke konfrontazio egoera baten aurrean. Azken finean, zenbait posizioren arteko aurkakotasuna azaleratuko litzateke, kontrajarriak diren jarrerak gorpuztuta. Konfrontazioak molde edo itxura ezberdinak har ditzake.


---

1 Latineko Conflictus = talka egin

2 Zentzu horretan, Josep Maria Vallés eta Salvadror Martí Puigek honela definitzen dute: "Gatazken jatorria gizarte desorekak eragiten dituzten ezberdintasun sozialetan kokatzen da. Baliabideen banaketak eta aukerek giza talde eta norbanakoak egoera asimetrikoetan kokatzen dituzte. Komunitateko kide guztiek ez dituzte aukera berberak baliabide material, formaziorako edota euren ideiak hedatzeko aukera berberak. Era berean, guztiek ez dituzte zeregin eta zamak banatzen: familiarrak, produktiboak, asistentzialak, fiskalak… Talde eta pertsonen arteko desorekek erantzun mota ezberdinak sortuko dituzte. Baldintza abantailatsuenetan daudenak euren egoera mantentzen saiatuko dira, eta horren alde borrokatuko dute. Bestalde, kaltetuek euren baldintzak hobetzen saiatuko dira" (Valles eta Martí, 2015:19). Itzulpena gurea da

3 Peruko PDTG erakundeko kideek, "metodología para el fortalecimiento de organizaciones sociales" gida osatu zuten, gatazka sozio-anbientalen erdian estrategia ezberdinak martxan jartzen laguntzeko helburua duen tresna. Gizarte antolakundeak indartzeko metodologia gida osatu zuten, gatazka sozio-anbientalen erdian edtrategia ezberdinak martxan jartzen laguntzeko helburua duen tresna. Honela definitzen dute bertan gatazka: " gizarte eraldaketarako prozesuaren parte da gatazka. Aldaketak eragiteko aukera eskaintzen duela uste dugu. Gainera, gatazka une egokia izan daiteke biztanleriaren eta bere erakundeen egoera sakon aztertzeko, dauden beharrak aitortzeko, nahi duten bizimodua eta etorkizuna esplizitatzeko, edota hobekuntzak proposatzeko". Hemen deskargatu daiteke: https://ia802803.us.archive.org/31/items/379419453MetodologiaParaElFortalecimientoDeOrganizacionesSocialesConEnfoqueDeAlt/379419453-Metodologia-para-el-fortalecimiento-de-Organizaciones-sociales-con-enfoque-de-Alternativas-al-Desarrollo.pdf

4 Joxemi Zumalabe Fundazioak EHko hainbat herri eragile eta berrehun bat banakakorekin batera 2012.urtetik 2014.urte arte burutu dugun gogoeta egin genuen. Ekimenaren helburu orokorra herrigintzan dihardugun taldeon barne antolaketa, funtzionamendu eta parte-hartzeari buruzko hausnarketa kritikoa bultzatzea izan zen. Gogoeta honetan ateratako ondorio, kezka eta galdera berriak modu kolektiboan idatzi eta liburu eta dokumental batean jaso genituen, "Dabilen harriari Gororoldiorik ez" izenburupean: http://joxemizumalabe.eus/liburuak/DHGE-1.pdf



Manifestazio baterako atxikimendua emateko erabili genuen argazkia.

Protestaz ari bagara, berriz, gatazkek hartzen duten formari egiten diogu erreferentzia. Hots, ekintza politikoen -agerraldi publiko, manifestaldi, sabotaia eta abar- bitartez, aurkaria interpelatu eta norbere posizioa agerian uztea litzateke protesta[5].

Adibidea: Lur, etxebizitza edo bestelako espazioen okupazioa

GATAZKA

Okupazioaren atzean dagoen gatazka ez du okupazioak berak sortzen. Bere jatorria jabego pribatuan dago, espazio eta etxebizitzei ematen zaien erabileran. Aldi berean, espazio publikoen erabilerarekin, eta bereziki kudeaketarekin, lotuta dago, jendeak bere sozializazio eta elkarguneak termino propioetan kudeatzeko aukerarekin. Jabetza pribatua. Espazio komunitarioen erabileraren balioa.

KONFRONTAZIOA

Desalojoak. Okupazioaren kasuan, konfrontazioa bere puntu gorenera heltzen da gatazka horretan dauden posizioak irudikatzen direnean: lur edo eraikinaren jabegoa duen jabe, enpresa edo erakundea, erabilera eta kudeaketa egiten duten okupatzaileak, beraien auzo edo herrian dauden bizilagunak eta erabilera horren inguruan posizionatzen direnak... Espazio horiek legez edo indarrez jabego pribatuaren eskutara bueltatzeko ahaleginak daudenean konfrontazioak intentsitate handikoak izaten dira. Funtsean, legala denaren (jabegoa norena den) eta bidezkoa denaren (nork erabiltzen duen espazioa eta zertarako) arteko konfrontazioa da, konplexutasun maila ezberdinekin, kasuan kasuko.


PROTESTA

Okupazioa bera, mobilizazioak. Konfrontazioa areagotzen den heinean biderkatzen dira protesta moduak ere: espazio horiek defendatzeko kanpaina eta sinadura bilketak, manifestazioak, utzaratzeari aurre egiteko erresistentzia zibila edo indarkeriazkoa, ekimen kultural edo artistikoak... Askotan, okupazioaz baliatzen dira okupazioaren kontrako erasoak salatzeko, galdu den espazioa edo beste bat berreskuratuta.

5 Virgina Manzano-ren (2013) definizioaren arabera: "aldarrikapenak sostengatuz, ikusgarritasun publikoa eskurtazen duen ekintza kolektiboa, intentzionalitatea duen eta liskartsua izan daitekeena".

Gogoetarako proposamena

Esku artean duzun proposamena ez da itxia, gatazkak birpentsatzeko pizgarri izan nahi duen tresna ireki eta amaitu gabea baizik. Balizko gatazka baten aurrean gure posizio eta pausoak zeintzuk izango liratekeen erabakitzeko prozesuan lagungarri suerta daitezkeen galderak hartu eta eremuka sailkatzen saiatu gara. Horrekin guztiarekin ariketa bat sortu dugu. Jakina, bide posible bat baino ez da eta kolektibo bakoitzak egokitu, birformulatu, osatu... edota paperontzira botako du!



Herri mugimenduetan estrategiak pentsatzen, proposatzen eta adosten ari garenean horien iraunkortasuna, eraginkortasuna eta aldaketarako gaitasuna aztertzea interesgarria izan daitekeelakoan gaude, eta horretarako galdera batzuk proposatzen dizkizuegu. Zergatik galderak? Irekiak direlako, ez direlako denak erantzun behar, hausnarketarako bide ematen dutelako eta gai horren inguruan solastean etengabeko itaunketan ibili garelako gure artean.

Hona hemen gure proposamena.



Gatazkaren abiapuntua

Zein da gatazkaren arrazoia?

Zertan oinarritzen da?

Gatazka sozial orok abiapunturen bat du, edo bat baino gehiago, gehienetan. Gure kolektibotan lantzen ditugun gatazka askoren oinarrian daude botere harreman desorekatuak, baina zeren araberakoak dira? Lurraren edo jabetzaren ingurukoak? Aberastasun banaketarenak? Generoari dagozkionak? Etniari? Hizkuntza eskubideei? Gatazka orok integratuak izango ditu elementu horiek eta beste batzuk, baina garrantzitsua da jakitea nola konbinatzen diren gure kasuan, unean uneko analisi egokia egitea elementuak harilkatzeko moduaz. Era berean, gatazka askoren oinarrian dauden elementuak zaharrak eta nahiko egonkorrak izango dira eta, beraz, inportantea da gure buruari galdetzea zergatik orain eta zergatik hemen: hau da, zer dela eta ari gara gure kolektiboan gatazka honen inguruan lanean edo gatazka bat ikustarazi nahian?

Nola kokatzen dira gatazka honetako aldeak? Nolakoak dira beraien arteko botere harremanak?

Non gaude gu?

Gatazka orotan hainbat posizio sortzen eta elikatzen dira. Une batzuetan posizio horiek oso argiak edota mugakoak izan daitezke; gatazka polarizatua dagoela diogu orduan. Beste une batzuetan, ordea, posizio anitzagoak sortuko dira. Beraz, garrantzitsua da pentsatzea gatazkak orain arte nolako posizioak sortu dituen eta nola kokatu diren pertsona eta taldeak horren inguruan; izan ere, jarrerak mugitzen saiatzea da herri mugimenduek gatazketan duten rolaren zati bat.

Zein(tzuk) d(ir)a estrategiaren helburua(k)? Eta nolako testuingurua dugu?

zer giro dago?

Aurrekoarekin lotuta, eta lehen galderen erantzunak lagun, zer da zehazki lortu nahi duguna gatazka honetan dugun esku-hartze edo ekintzekin? Posizioak mugitu nahi ditugu? Zapalkuntzak irauli? Ezkutuan zegoen gatazka bat agerrarazi? Zein bide jarraituko dugu eta zeintzuk izango dira epeak? Testuinguruko zein elementuk lagundu gaitzake? Zeintzuk izango dira jarri beharreko mekanismoak gure estrategiak horizontalki berrikusi eta aldatu ahal izateko?
Jende askok uler eta parteka dezakeen posizioa da gurea edo batzuei oso arrotz eta ulergaitza suertatuko zaie?
Gatazka sozial baten eragin nahi badugu, ezinbestean gatazka hori ikusgarria eta ulergarria izan behar da eragin nahi dugun esparruan dagoen jendearentzat. Galdetu beharrekoa da, beraz, ulergarriak diren terminotan azaltzen ari garen gatazka, jende dezente ote den gatazka horren jakitun edo/eta jarrerarik hartu duen horren inguruan. Eragile garen aldetik, gure kolektiboak ere posizio bat izango du egoera horretan (finkoa edo aldakorra izan daiteke, esplizitu edo inplizituagoa...). Era berean, itaundu beharrekoa da ea jendeak bat egiten duen gure jarerrarekin edo aintzat hartu edo aitortzen duen.
Gure estrategiek aurreikusten al dituzte konfrontazioaren zentroan ez dauden pertsonak kontuan hartzeko moduak? Mekanismo horiek aktibatzen al dute modurik asistentzialista edota partenalista ez direla bermatzeko? Aldi berean, nola lortuko dugu jendearen iritziak jasotzea, kolektiboaren erabakietan beste iritzia ere egon dadin? Gatazkak ikusgarriago egiten diren heinean, ohikoa da gure posizioa finkatzea eta bi polotan kokatuta dauden agenteek bata bestea kontutan hartuta jokatzea edo estrategiak

moldatzea, bereziki gatazkak polarizatzen direnean. Alta, beste jarrera bat hartu duten pertsona, talde eta eragileak egongo dira. Nola bermatuko dugu haien espazioa gure estrategiaren baitan, polarizazioak sortzen duen "ahari talka" hutsean ez geratzeko? Pertsona eta talde horiek inplikazio handia izan dezakete gatazkan, baina, hainbat arrazoi tarteko, ez dute aktiboki parte hartzen guk planteatzen dugun estrategian. Pentsatu beharra dago, hortaz, haiekin dugun harremana ezin dela haiek "konbentzitzera" edo guregana hurbiltzera mugatu; joan-etorriko harremanak sortzeko gaitasuna landu behar dugu.

Zer nolako aukerak eta baliabideak ditugu aurrera egiteko? Baliabideak zentzu zabalean ulertu behar dira: pertsonak, dirua, denbora, aukera politikoak eta abar. Denbora luzez eutsi nahi dugun estrategia da? Baiezkoan, posible al dugu hori bermatzea? Nola egin dezakegu? zeIN ondorio izan ditzake taldearentzat eta taldekideentzat? Aurreikusten al ditugu bidean gu eta beste batzuk animatuko dituzten lorpen txikiak? Galdera horiek hurrengo atalean landuko ditugun galderekin lotuta daude. Kasu gehienetan gatazkak ez dira azken bultzada batekin konpontzen, puri-purian daudenean hala ematen duen arren. Beraz, gure baliabideak zein baliabide sozialak kontuan hartu behar ditugu epe laburreko ikuspegiak ekiditeko: sostengarria al da gure estrategia (mobilizazioak, ikusgarritasuna...)? Gure kolektiboak aurre egin ahalko dio (erre gabe, gure diruak erabat xahutu gabe...)?

Horrek ez du esan nahi ezin dugunik erabaki une batzuetan gure diru edo baliabideak xahutzea eta gure ekintzen bitartez, laburrak izan arren, indar handia duten uneak sortzea. Egiten duguna egiten dugula, jakin edo aurreikusi behar dugu zeintzuk izan daitezkeen ondorioak.

Gatazkaren prozesua eta ibilbidea

Kanpora begira, jendea batzea lortuko al du? Baita epe luzean ere? Nork har dezake parte eta nork ez? Ba al dago inoiz parte hartzeko aukera izango ez duen norbait/kolektiboren bat?

Gatazka sozial bat astintzeko hainbat modu daude, hainbat estrategia: sentsibilizazioa bultzatu dezaketen ekimenak abiatu ditzakegu, polarizazioa sortu edo arindu dezaketenak, eraikitzaileak diren ekimenak burutu ditzakegu, baita salatzen dutenak ere… Aukera guzti horiek berezko ondorioak dituzte eta haien artean konbinatu daitezke.


Zalantzarik gabe, ekimenek batzeko duten gaitasunak kezkatu egiten ditu herri mugimenduak. Askotan, ordea, ez diogu gure buruari galdetzen zein harreman duen horrek gure estrategiekin: posible al da jende multzo zabal bat gure estrategiarekin identifikatzea eta hor egon nahi izatea? Zeintzuk dira hori errazten duten elementuak gure plangintzan eta zeintzuk zailtzen dutenak? Zer irabazten eta zer galtzen dugu elementu horiek indartzean edo alboratzean? Jendearen motibazio eta gogoez gain, ba al daude haien parte-hartzea mugatu ditzaketen elementu materialak (arriskua, dirua, denbora, gaitasunak...)?

Barrura begira (gure taldeari/taldeei), gure arteko kohesioa bultzatzen du edo urrundu egiten gaitu? Zer nolako eragina (fisiko, animiko, ekonomiko, errepresiboa…) izan dezake gutariko bakoitzarengan? Eta taldearengan? Nola uztartu ditzakegu kanporako eta barrurako begirada horiek?

Gure estrategiak ez ditu ondorioak soilik kanpora begira, helburu zehatz batzuk lortzeari begira. Barrura begira ere ondorioak izango ditu eta ezinbestekoa dugu berauek kontutan izatea. Kolektibo edo taldeetan parte hartzen duten pertsonengan eta beraien gertukoengan eragina izan ditzaketen alderdiekin (estresa, tentsioa, errepresioa, beldurra, etsipen sentsazioa, norbere bizitzako beste aspektuak alboratzea eta ardura batzuk beste batzuen eskuetan uztea...) zer egingo dugun pentsatu behar dugu; gatazkak astintzeko estrategiak ezin dezake kontenplatu soilik oso zabala den bizitza sozialaren eragin-esparru abstraktua, barrura begirako eraldaketa eragin eta elkar zaintzeko balioko duen estrategia izan behar da aldi berean.

Nortzuk bildu gara gatazka hori ikusarazi nahian? Nortzuk ez daude? Gatazka hori gorpuzten dugun pertsonak gaude?

Gatazka ikusarazi edo mugitu nahi dugun espazioa nolakoa den jakiteak ere kezkatzen gaitu. Espazio horretan nortzuk gauden, pertsona horiek gatazka nola bizi duten, espazio horretan parte hartzen duten pertsonen kokapen soziala zein den... Izan ere, gerta daiteke gatazkaren ondorioak bizi dituzten pertsonek gure planteamendu eta estrategiekin bat ez egitea edo horiengandik oso urrun sentitzea.



Gatazkaren eskalatzea

Gatazka orok faseak bizi ditu; une batzuetan pil-pilean egongo da (oso presente komunitateen bizitzetan, presentzia mediatikoarekin, tentsioarekin...) eta beste une batzuetan, aldiz, ia ahaztua egongo da, itzalita. Askotan gatazka bat itzalita egoteak ez du esan nahi gatazka horrek ez dituenik ondorioak edota pertsona, giza-talde, animali edo ingurune batzuek pairatzen ez dutenik.

"Eskalatzea" esaten diogu gatazka fase batetik bestera mugitzeari (edo mugiarazteari); "des-eskalatzea" deritzogu kontrakoari. Finean, eskalan igotzea edo jaistea litzateke; baina zer ulertzen dugu horrekin?

Astindu nahi dugun gatazka unez une pentsatzeko galdera gutxi batzuk planteatu ahal ditugu gure kolektibo edo taldeetan.

- Zein bide erabiliko ditugu gatazka eskalatzeko? Nola lortuko dugu gatazka eskalatzea gure taldearen printzipio etikoekin bat datozen bideak erabilita?
- Zeri erantzuten dio gatazka eskalatzeko nahiak? Ba al dago emozio zehatzen bat nahi horren oinarrian?
- Gehienetan indarkeriaren erabilerarekin lotzen dugu gatazka eskalatzea, baina ziur al gaude gure kasuan eta unean uneko/lekuan lekuko horrek eskalatzen lagunduko duela?
- Zeri esaten diogu eskalatzea? Gatazka ikusgarriago egoteari? Jende gehiago inplikatua sentitzeari? Iritziak polarizatzeari? Gutxi batzuek gatazka intentsitate handiz bizitzeari ala jende multzo handi batek intentsitate gutxiz bizitzeari?
- Gatazka larregi tentsionatu bada edo asko eskalatu badu ba al ditugu medioak berau deseskalatzeko? Ala maila batetik aurrera kolektibo eta gizarte inplikatu bezala egin dezakegunak ez du eraginik gatazkaren eskala gure kontroletik kanpo geratu delako?

Oharra: Ez ahaztu garrantzitsua dela ziurtatzea uneak eta guneak izango ditugula prozesu osoan egindakoari buruz hausnartzeko.

Gatazkaren ondorioak

Nolako eraginak izan ditzake, zertan eragiten du? Arau sozialak edo legeak eraldatzeko gaitasunik al du? Eta berriak sortzekoa? Eragin zuzena al du pertsona batzuen egunerokotasunean?

Gure gatazka "astintzeak" izan dituen ondorioak aztertzea eta baloratzea garrantzitsua da. Horretarako, baliagarria da zenbait dimentsio kontutan izango dituen analisia egin ahal izatea, hala nola: aspektu administratibo eta legaletan izandako eragina edo eragin eza; lege sozialen aldaketan edo jendarteko sektore batzuek berauekin identifikatu edo betetzeko asmoetan; pertsona, talde, animali edo ingurune baten egoeran, izan ekonomikoki, emozionalki edo biziraupenean; antolakuntza forma berriak sortu edo zeudenak indartzean; imaginarioak eraldatzeko izandako gaitasunean; egitura iraunkor emantzipatuagoak sortu edo indartzean, eta zuei bururatzen zaizkizuenak.

Zein bide erabiliko dugu etorkizunean izan ditzakeen ondorioak kolektiboki kudeatzeko?

Adierazi dugun bezala, gatazkak ez dira hasi eta bukatzen, itxuraz aldatu eta berauen kondizioak aldatzen dira. Dena dela, jakin behar dugu egindakoaz hausnartzeko eta aurrera begirakoak pentsatzeko uneak topatzen; bitartean, orain arte egindakoen ondorioei aurre egitea egokituko zaigu. Jakina, ondorio horiek positiboak (babestu eta indartu beharreko lorpenak) edo negatiboak (gure taldeko kideek edo beste batzuek bizi dituzten egoera espezifikoak: errepresioa, nekea, barne- bizitza zein bizitza kolektibo ezegonkorra...) izan daitezke eta, gehienetan, nahastu egingo dira.

Gogoratu oso baliagarria dela bizi izandako prozesuen ikaspenak, bidean izandako eztabaidak, erabakiak hartzeko moduak, hausnarketak eta abar jasotzen dituen errelatoa, bai aurrera begira, baita beste batzuei begira ere. Zentzu horretan, ezinbestekotzat jotzen dugu hartutako erabakiak zein etorkizunera begira adostutakoak guztientzat sostengarria eta zehatza izango den moduan jasotzea.

Eta hemendik aurrera zer?

Gure lehen pausoa izan da barne saioetan, mugimenduetako kideekin egindako saioetan eta saio publikoetan jasotako ideia, korapilo eta pentsamendu lerroak bateratzea. Ideia horiek guztiak txukundu eta antolatu ostean, gure asmoa da herri mugimenduetako kide eta aktibistekin partekatzea.


Identifikatutako lau elementuetako –gatazka, biolentziak, desobendientzia eta aliantzak- bakoitza lantzeko erritmoa eta formatua desberdina izan da. Gatazkei dagokionean, kaiera formatuan jaso dugu gogoeta. Beste harri batean, aliantzen inguruko bideo-elkarrizketak argitaratuko ditugu.

Lantxo hauen zabalpenean, une honetan bizirik dauden kezken hariei elkarrekin tira egin nahi diegu. Horretarako, kaiera eta bideoak zabaltzeaz gain, gogoetarako espazio ireki eta lasaiak sortzea ere da gure asmoa; edozein ideia partekatzeko edo gaiaren inguruan sakontzeko interesa izanez gero jar zaitezte gurekin harremanetan helbide honen bitartez:

komunikazioa@joxemizumalabe.eus.

Elkarren berri izango dugulakoan!





Joxemi
Zumalabe
Fundazioa